

ZER ZERBITZU ESKAINTZEN DITUGU?

JOLASTOKIA:

Hemen, mahai-jokoak, ping-pong-a, mahai-futbola, dardoak, aire-hockeya, etab. aurkituko dituzu. Gainera, lagunekin elkartu eta jende berria ezagutu ahal izango duzu. Ez da txartelik behar, etorri, eskatu jolas bat, eta lagunekin partekatu ahal izango duzu.

LEIHATILAK ETA ARMAIRUAK UZTEA:

Elkarte edo talde bateko kide bazara, hiruhileko lagapena baduzu, 35 urtetik beherakoa bazara eta Zizur Nagusian erroldaturik bazaude, eskatu eta doan gorde ahal izango duzu behar duzun materiala urtebetez.

Zure gauzak leihatilan ere gorde ditzakezu Gaztetxean zure denboraz gozatzen duzun bitartean.

ARETOAK LAGATZEA:

Zazpi areto dituzu eskura: Dantza - motrizitate aretoa, Lantegi-sormen aretoa, Audio-ikusmen Aretoak, Nutrizio Lantegi Aretoa, Bilera Aretoak eta Kolektiboak.

Espazio hauek jarduera zehatzak egiteko erabil ditzakezu (dantza, entrenamenduak, bilerak, musika-entseguak...), eta araudi komun batek arautzen ditu. Hala ere, horietako bakoitzak, bere ezaugarriak kontuan hartuta, berariazko araudi bat du.

Erabilera dohainik eta irabazi asmorik gabekoa da.

Bi eratara eska daitezke:

- ➔ **Hiruhileko lagapenak:** areto bat erreserbatzea egun baterako eta ordu jakin batzuetarako astean hiruhileko natural batean.
- ➔ **Legapen puntualak:** gela bat erreserbatzea egun jakin baterako, ordu jakin batzuetan.



MAILEGU MATERIALA:

Gaztetxeak material sorta zabala du eta behar dituenaren eskura daude. Kanpadendak, espeleologiako eta eskaladako materiala, mahai-jokoak, liburuak, ekitaldiarako Jaimak, etab.

Zizur Nagusian erroldatuta dagoen 12-35 urte bitarteko edonork eska dezake. Gainera, urte osoan zehar duzu eskura substantzien kontsumoari, sexualitateari edo familientzako eta zure lagunentzako dokumentu- funtsei buruzko prebentzio-materiala.



IKASTAROAK, JARDUERAK ETA TAILERRAK:

Urtean zehar hainbat jarduera egingo ditugu:

- ➔ **Ludikoak:** abentura anitzeko irteerak naturan, hezkuntza-langileek zuzendutako tailerrak, kirol- eta jolas-txapelketak, lehiaketak...
- ➔ **Prestakuntza:** zuen eskaeretara egokitutako ikastaroak eta tailerrak programatuko ditugu.
- ➔ **Informatiboak:** hitzaldiak, solasaldiak, feminismoa...
- ➔ **Jaiak eta ospakizunak:** inauteriak, Halloween, martxoaren 8a...
- ➔ **Prebentzio neurriak:** sentsibilizazio kanpainak, festen prebentzio kanpaina, 8M, 17M, 28J, Zero eremua, Atsedeen hartu eta ogitarteko bat hartu...
- ➔ **Komunitarioak:** lankidetzan aritzeko eta komunitatea eraikitzeko ekintzak eta jarduerak.





EKIMENETARAKO LAGUNTZAK:

Kontatu zure ideia, eta hura martxan jartzen lagunduko zaitugu. Gauza bategatik edo besteagatik inoiz egin ez dituzun eta buruan dituzuan proiektu, proposamen, ekimen... guztiak. Zatoz Gaztetxera eta zure proiektuari forma ematen lagunduko dizugu.

GAMER ETA INFORMATIKA GELA:

Gamer areto bat eta lanerako gunea dugu: 7 ordenagailu doan eta publikoak. Zatoz txartel batekin erabilera-denbora erreserbatzera.

BOLUNTARIOAK:

Ez utzi alde batera zure kezka, elkarte eta kolektiboetan lagundu nahi baduzu, hurbil zaitez! Bilatzen lagunduko zaitugu.

INFORMAZIO OROKORRA

948 18 49 68 · 680 782 283
gaztetxe@zizurmayer.es
Kirolalde pasealekua 1

680 782 283
@gaztetxezizur

ORDUTEGIA:

Neguko ordutegia:

Goizez:

Astelehenetan, 09:00etatik 12:30era.
Asteazken eta ostiraletan, 09:00etatik 12:00etara.

Arratsaldez:

Astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara.

Asteburuak:

Larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Igandeetan, 17:00etatik 21:00etara

Udako ordutegia:

Goizez:

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara

Arratsaldez:

Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara

Asteburuak:

Larunbatetan, 10:00etatik 13:30era

GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOA:

Doako zerbitzu honek informazio eguneratua eta plurala bermatzen dizue, pertsona bakoitzaren beharretara egokitua. Begiratu autokontsulta-panelak eta liburuxak, edo, nahiago baduzu, bidali zure zalantzak telefonoz, posta elektronikoz, Instagram-en bidez... (bilatu @gaztetxezizur gisa). Utzi zure posta elektronikoa edo whatsapp, eta aisia, kirol, jardunaldi, ikastaro, osasun... gaiei buruzko informazioa bidaliko dizugu.



AHOLKULARITZAK:

- ➔ **Asexoria osasun afektibo sexuala:** Prebentzio materiala eta osasun afektibo sexualari buruzko zalantzak argitzea.
- ➔ **Eremu psikologikoa:** eraikitzen.
- ➔ **Lanekoa:** lana bilatzeko eta curriculuma egiteko lehen urratsetan lagunduko dizugu.

ARAUDIA:

Zizur Nagusiko Gaztetxearen funtzionamendua, Funtzionamenduaren Arautegiaren Ordenantzaren mende dago eta Udalaren web orrian kontsulta daiteke.

Horrez gain, oinarrizko arau batzuk daude, tokiko erabilera eta gozamen egokia ziurtatzeko: pertsonak, materiala eta ordutegia errespetatzea.

gaztetxea
ZIZUR MAYOR
ZIZUR NAGUSIA
casa de la
juventud

ARETOAK



ZIBERESPazio
ARETOA



JOLASTOKI
ARETOA



BULEGO
PARTEKATUA



DANTZA
ARETOA



CHILL OUT
ARETOA

ARETOAK



MUSIKA
ARETOA



NUTRIZIO
ARETOA



ERABILERA
ANITZEKO GELA



ERABILERA
ANITZEKO GELA



ELKARGUNEA



SORKUNTZA
ARETOA